

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Ofizial Arotz lanpostu bitarteko funtzionarioarekin betetzeko deialdia**

Basauriko Alkateak 3352/2018 Dekretua eman du, urriaren 3ko datarekin. Dekretu horrek zera dio:

Kontuan izanda euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onetsi zuen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren XII. Kapituluak xedatutakoa.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen II. Tituluaren IV. Kapituluak langileak hautatzeari buruz xedatutakoarekin bat etorrita. Eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 artikulua —apirilaren 21eko 11/1999 Legeak ezarritako aldaketen arabera— aitortutako eskumenetan oinarrituta, Alkatetza honek zera

XEDATZEN DU:

Lehenengoa: Ofizial Arotz lanpostua oposizio libre bidez hautatutako bitarteko funtzionario batekin betetzeko deialdia onestea.

Bigarrena: Onestea, era berean, deialdi hori arautuko duten oinarriak. Dekretu honi erantsita doaz.

Hirugarrena: Oinarriok Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren iragarki-taulan eta webgunean, eta prentsan argitaratzeko agindua ematea.

Laugarrena: Dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Bilboko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiaren aurrean, berau argitaratzen den dataren biharamunetik bi hilabeteko epean. Bestela, hala nahi izanez gero, berraztertze-ko errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren aurrean. Hala xedatzen du Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluaekin bat.

Basaurin, 2018ko urriaren 3an.— Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta

**OFIZIAL AROTZ LANPOSTUA ALDI BATEZ BETETZEKO BITARTEKO FUNTZIONARIOA
HAUTATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK****Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

Deialdi honen xedea da Basauriko Udaleko ofizial arotz lanpostua bitarteko funtzionario batekin betetzea, lanpostua behin betiko bete bitartean, edota deialdia eragin zuten premiatasunak eta beharrianak desagertu bitartean. Aipatutako lanpostua oposizio bidezko sarbide librez hornituko da.

Aipatu plaza Administrazio Bereziaren Eskalan, Zerbitzu Berezien Azpieskalan, Lanbideetako Langileen Klasean dago, eta honako ezaugarri hauek ditu: C ordainsari-taldeari, C2 azpitaldeari, dagokion soldata; 17 lanpostu-mailako osagarria; aparteko ordainsariak; hirurtekoak; eta gainerako ordainsariak. Hori guztia, indarreko legeriarekin bat etorrita eta Basauriko Udalak hartu dituen edo hartuko dituen akordioei jarraiki. Era berean, 1. hizkuntza-eskakizuna atxikia du lanpostuak, baina ez da nahitaezkoa.

Lanpostuaren eginkizunak izango dira unean-unean Udalaren organigrama funtzionalean zehaztutakoak. Gaur egun, hauek dira:

- Zurgintza-tailerraren berezko lanak egitea, hain zuzen ere, eragindako erabilera-ondasun edota zerbitzu publikoei lotutakoak.
- Lanpostuaren eginkizunak aurrera eramateko esleitutako baliabide materialak edota giza baliabideak kudeatzea.
- Laguntzaileek eta langile lan-kontratadunek tailerrean egindako lanak kontrolatu eta ebaluatzea.
- Zurgintza-lanak egitea udal eraikinetan, bide publikoan eta hiri-altzarietan. Laguntzaileek eta langile lan-kontratadunek egindako zurgintza-lanak ikuskatzea.
- Laguntza eskaintzea langileak hartzeko egin daitezkeen hautaprobetan. Eta, orokorrean, beren lanbidearekin zerikusia izan, eta nagusi funtzionalek agindutako lanak egitea.

Bigarrena. — Izangaiek bete beharreko baldintzak

Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte izangaiek:

- Europar Batasuneko estaturen bateko herritartasuna izatea; edo, bestela, Europar Batasunak egin, eta Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itunen aplikazioari jarraiki, langileen zirkulazio askea aplikatzen den estaturen bateko herritartasuna izatea. Halaber, parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatueta-ko herritartasuna dutenen ezkontideek, betiere, zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude; herritartasuna duenaren ondorengoek eta haren ezkontidearen ondorengoek ere —zuzenbidearen arabera bananduta ez badaude— aukera izango dute parte hartzeko, baldin eta 21 urtetik beherakoak badira edo, adin horretatik gorakoak izanda, gurasoen kontura bizi badira.
- 16 urte beteta izatea eta erretiro-adinera iritsi gabe egotea.
- Lanak behar bezala egitea ekiditen duen gaixotasun edo traba fisikorik ez izatea. Baldintza honek ez du eragotziko minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legea aplikatzea.
- Diziplina-espedientearen bidez Estatuko, Erkidegoko, tokiko edo erakundeko administrazioetik baztertuta ez egotea; eta funtzio publikoak betetzeko desgaituta ez egotea.
- Herri-administrazioen zerbitzura diharduten langileen bateraezintasunaren arloan indarreko legeriak aurreikusitako desgaitasunaren edo bateraezintasunaren legezko kausan sartua ez egotea.
- Eskola-ziurtagiria edo horren parekoa edukitzea, edo berau eskuratzeko moduan egotea, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen.



Oinarri honetan zehaztutako baldintzak, eskabideak aurkezteko epearen amaieran bete beharko dira, eta indarrean egon beharko dira lanpostua hartzeko unean.

Hautaketa-prozesuan onartuak izateko eta bertan parte hartzeko, nahikoa izango da izangaiek beren eskabideetan adieraztea bete egiten dituztela eskatutako baldintzak — aurrerago, hori egiaztatu beharko dute—.

Hirugarrena—Eskabideak

Onartuak izateko eta, egoki bada, dagozkion hautaprobetan partehartu ahal izateko, eskabidea aurkeztu beharko dute izangaiek, eta adierazi hautaketa-prozesuan parte hartu nahi dutela. Era berean, jaso beharko dute Bigarren Oinarrian adierazitako baldintza guztiak eta horietako bakoitza betetzen dituztela —eskabideak aurkezteko amaierako data aintzat hartuta—.

Beraz, izangaiek honako hauek adierazi beharko dituzte:

- a) Eskatutako datu pertsonalak.
- b) Oposizio aldiko hautaprobak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten: euskaraz ala gaztelaniaz.
- c) Desgaitasunak dituztenek beren egoeraren berri eman beharko dute eskabidean, eta, hala badagokio, adierazi beharko dute hautaprobak egiteko zein arrazoizko denbora eta baliabide-egokitzapen eta -doikuntza behar dituzten.

Eskabideari honako hauek erantsiko dizkiete, bakar-bakarrik:

- a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia; atzeritarrek, horren baliokidearena.
- b) Hizkuntza Eskakizunaren egiaztagiria, merezimendu gisa konputatua izan dadin, Seigarren Oinarrian ezarritakoarekin bat etorrira.

Eskabidea aurkeztuz gero, joko da baimena ematen dela norberaren datuak (izen-abizenak eta telefono-zenbakia) beste herri-administrazio batzuei lagatzeko, datuok eskatzen badituzte lanposturen bat premiaz betetzeko.

Eskabideak udalburuari zuzenduko zaizkio, eta Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira 10 laneguneko epean zehar, deialdiaren iragarkia prentsan eta erakundearen webgunean agertzen den dataren biharamunetik zenbatzen hasita.

Halaber, eskabideak aurkeztu ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. eta 66. artikuluetan xedatutako moduan.

Dagokion ziurtagiriaren bidez %33ko edo hortik gorako ezintasuna dutela egiaztatzen duten izangaiek aukera izango dute eskatzeko ariketak egiteko denbora eta bitartekoak moldatzea, hala behar izanez gero. Xede horretarako, minusbaliotasunaren ehunekoa eta ezaugarriak adierazi beharko dituzte.

Eskabideetan adierazitako datuetara lotuta geratuko dira izangaiek. Datuok aldatzeko, idatzi arrazoitua egin beharko dute, eskabideak aurkezteko arestian aipatutako epearen barruan. Epe hori igarota, ez da halako eskaerarik onartuko.

Basauriko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean jarriko da hautaketa-prozesuari eta horri lotutako egintzei buruzko informazioa. Jakinarazpen eta komunikazio ofizialen balioa izango du horrek.

Laugarrena.—Izangaiek onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, udalburuak ebazpena emango du, gehienez ere 5 eguneko epean, adieraziz onetsia izan dela onartutako eta kanpo utzitako izangaien zerrenda; gero, zerrenda hori jendaurreko jarriko da Udalaren iragarki-taulan, eta bost laneguneko epea egongo da bazter utzitakoek horren aurkako erreklamazioak aurkezteko eta baztertzea eragin duten hutsegiteak zein dokumentuak zuzentzeko.

Ezingo da zuzendu eskabidea epez kanpo aurkeztu izana, edota merezimenduak egiaztatzeko agiritan akats edo hutsuneak egon izana.



Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, udalburuak ebazpen berria emango du, onartuen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda onetsiz.

Bigarren ebazpen horretan, Epaimahai Kalifikatzailearen osakeraren berri ere emango da, eta adieraziko da lehen ariketa zein datatan egingo den.

Lehenago aipatutakoa horrela izanda ere, bigarren ebazpen horren ostean, edozein unetan —baita probak egiten ari direnean ere—, Epaimahaiak edozein izangai hautaprobetik baztertzeko proposamena egin ahal izango dio Alkatetzari, hautematen badu eskabideak edo horri erantsitako dokumentazioak zehaztasunik eza edo faltsukeria duela, eta hori izangaia baztertzeko arrazoia dela. Hala egingo da, hain zuzen ere, akats hori konponezina dela joko delako.

Bosgarrena. — Epaimahai Kalifikatzailea

1. Epaimahai Kalifikatzailearen osakerak bat egingo du Enplegatu Publikoaren Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onesteko urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikulua xedatutakoarekin. Horrenbestez, epaimahaiburu bat, idazkari bat eta hiru epaimahaikide izango ditu Epaimahai Kalifikatzaileak, eta onartuen behin betiko zerrendari buruzko ebazpenean jakinaraziko zaie horren osaera izangaiei.

2. Edozelan ere, Epaimahai Kalifikatzaileak aholkulari adituen laguntza jaso ahal izango du, zeintzuk beren espezialitate teknikoak egikaritzera mugatuko baitira. Hala xedatzen du Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 31.3 artikulua.

3. Epaimahai Kalifikatzaileko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta udalburuari horren berri eman, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua jasotako egoeraren bat ematen denean. Beste alde batetik, hautagaiek Epaimahahiko kideak errekusatu ahalko dituzte, aipatutako Legearen 24. artikuluari jarraituta, baldin eta aurreko artikuluan jasotako arrazoiren bat ematen bada.

4. Epaimahai Kalifikatzaileko kide guztiek izango dute hitza eta botoa.

Era berean, bertaratuen gehiengoaren aldeko botoekin hartuko ditu erabakiak Epaimahai Kalifikatzaileak.

5. Epaimahai Kalifikatzailea osatuko dute titularrek eta horien ordezkoez. Titularrekin batera izendatuko dira epaimahaiburuaren, idazkariaren eta epaimahikideen ordezkoez ere.

6. Epaimahaia ez da eratuko, eta ezingo du jardun, kideen erdiak (titularrak zein ordezkoez) bertan ez badaude.

7. Hautaketa-prozesuaren edozein unetan Epaimahai Kalifikatzaileak jakingo balu hautagairen batek ez dituela betetzen deialdiko baldintza guztiak, pertsona hori hautaketa-prozesutik baztertuta izango da, aurretiaz entzunaldia emanda; eta, egun berean, horren guztiaren berri emango zaio hautaketa-prozesua deitu duenari. Hauteman litezkeen izatezko akatsak edozein unetan konpondu ahal izango dira, ofizioz edo interesatuak hala eskatuta.

Seigarrena. — Hautaketa-prozesua

Oposizio libre bidez hautatuko dira lanpostuak beteko dituztenak.

OPOSIZIO ALDIA

1. proba (nahitaezkoa eta baztertzaila)

Epaimahaiak ezarritako gehienezko denboran, oinarri hauei dagokien gai-zerrendaren zati komuneko eta zehatzeko (I. eta II Eranskinak) edukiei buruzko erantzun anitzeko galderetegiari idatziz erantzutea. Galdera bakoitzeko 4 erantzun egongo dira, eta txarto erantzundako galderek puntuak kenduko dituzte.

Puntuazio zuzena honako formula honekin lortuko da: ondo erantzundakoak ken txarto erantzundakoen herena ($P = O - T/3$). Erantzun gabe utzitakoak ez dira kontuan hartuko.



Puntuazioa 0tik 10era bitartekoa izango da eta, gutxienez, 5 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Hautagaien nortasunaren berri izan baino lehen, epaimahaiak azken puntuazioan gutxienez bost (5) puntu lortzeko beharrezko jakintza maila finkatuko du.

Epaimahaiak finkatzen duenean azken puntuazioan gutxienez bost (5) puntu lortzeko beharrezko jakintza maila zein den, puntuazio zuzenak azken puntuazio bihurtuko dira, eta banaketa proportzionala erabiliko da hamar (10) puntuko azken puntuazioa lor daitekeen gehieneko puntuazio zuzenarekin bat etortzeko. Eragiketa horiek guztiak hautagaien nortasunaren berri izan gabe burutuko dira.

2. proba (nahitaezkoa eta baztertzaila)

Deialdiaren xede den lanpostuaren zereginei eta II. Eranskineko gai espezifikoaren zerrendari lotutako ariketa bat ala batzuk egitea.

Puntuazioa 0tik 10era bitartekoa izango da eta, gutxienez, 5 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Euskararen ezagutza egiaztatzeko aldia

Meritu gisa balioetsiko da honako hauek egiaztatzea:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 2 puntu.

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeari dagokionez, izangaiek egiaztatu beharko dute dagokion hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria edo horren baliokide den titulua badutela. Titulu baliokideak jasotzen dituzte euskararen ezagutza egiaztatzeko titulu eta ziurtagiriaren arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzen dituen azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren 3. artikulua; eta euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagiriaren bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak. Aipatutako egiaztatzea aurkeztu beharko da hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidearekin batera.

Zazpigarrena. — Hautaketa-prozesuaren emaitza

Hautaketa-prozesuko aldi puntuagarrietan lortutako puntu-kopuru osoaren arabera izango da sailkapenaren hurrenkera. Berdinketa egonez gero, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

- a) Oposizio aldiaren puntu gehien lortu duena.
- b) Oposizio aldiko bigarren proban puntu gehien lortu duena.
- c) Oposizio aldiko lehen proban puntu gehien lortu duena.

Zortzigarrena. — Onartuen zerrenda. Dokumentuak aurkeztea

Hautaketa-prozesua amaituta, oposizioa gainditu dutenen zerrenda argitaratuko du Epaimahai Kalifikatzaileak, lortutako puntuen hurrenkerari jarraituta, eta hautatutako pertsona nor den adierazita. Zerrenda hori udalburuari bidaliko dio, eta berriaz adieraziko du nor izendatu behar den bitarteko funtzionario; proposamen horrek izaera loteslea izango du.

Aldi berean, azken bileraren akta ere bidaliko dio Epaimahai Kalifikatzaileak udalburuari. Akta horretan jasoko dira, puntuazio-hurrenkeraren arabera, ariketa guztiak gainditu arren, deialdian ateratako lanpostuak baino gehiago izateagatik kanpoan gelditu diren oposiziogile guztiak. Halaxe egingo da, alde batetik, pertsona horiengana jotzeko, lanpostua lortu duten hautagaien arteko bat edo gehiago lanpostuaz jabetuko ez balira; eta bestetik, iraunkorrak ez diren lanpostu berdintsuetarako langile beharrianak betetzeko. Aipatutako guztia, hiru urteko hasierako epe baterako izango da.

Epaimahai Kalifikatzaileak emandako ebazpena loteslea izango da izendapena egiteko eskumena duen organoarentzat, baina organo horrek ebazpena berrikusi ahal izango du. Hala xedatzen du Herri- Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak.



Proposatutako oposiziozileak, bere aldetik, deialdian parte hartzeko oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu Udaleko Erregistroan, 10 egun balioduneko epean —proba gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik zenbatzen hasita—. Hauexek dira aurkeztu beharreko agiriak:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, behar bezala konpultsatuta.
2. Zinpeko aitortpena, non izangaiak adieraziko duen ez dutela desgaitu kargu publikoak betetzeko, edota ez dutela baztertu Administrazio Publikoko zerbitzutik, diziplinazko espedientea dela-eta.
3. Zinpeko aitortpena, non izangaiak adieraziko duen Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/84 Legean ezarritako bateraezintasunik ez duela.
4. Lanpostuari dagozkion zereginak normaltasunez burutzea galaraziko dion gaixotasun edo traba fisikorik ez duela egiaztatzeko osasun-agiria.

Izangai minusbaliatuek, gainera, dagokion plazaren funtzioak betetzeko gaitasun-agiria aurkeztu beharko dute. Dagokion administrazio-organoak emango du egiaztagiria hori.

5. Deialdiaren baldintza espezifikoei dagozkien egiaztagiria (eskola-graduatuaren, 1. gradu Lanbide Heziketaren edota horien titulu baliokidearen fotokopia konpultsatua).

Ezinbesteko kasuak alde batera utzita, proposatutako izangaiak ez baditu eskatutako dokumentuak adierazitako epearen barruan aurkezten, edo eskatutako baldintzak betetzen ez baditu, ezin izango dute hura izendatu, eta ezeztatu egingo dira haren ekintza guztiak. Gainera, izangai horrek bere gain hartuko du hautaketa-prozesuan parte hartzeko erabilitako faltsukeriatik erator litekeen erantzukizuna. Kasua hori denean, sailkatuen zerrendan hurrengo tokian dagoenaren aldeko izendapen-proposamena egingo du udalburuak.

Bederatzigarrena. — Izendapena

Aipatutako dokumentuak aurkezteko epea amaituta, hautatutako izangaia bitarteko funtzionario izendatuko dute.

Hautatutakoari zuzenean emango diote izendapenaren berri.

Bidezko arrazoirik tarteko ez bada, joko da interesdunak karguari uko egiten diola, baldin eta adierazitako epeetan lanpostuaz jabetzen ez bada. Kasu horretan, zerrendako hurrengoarengana joko da (aurreko atalean aipatutako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu aurretiaz).

Hamargarrena. — Lan-harremana etetea, baliogabetzea edota iraungitzea

Bitarteko funtzionarioaren lan-harremana etengo da Enplegatutako Publikoaren Estatutu Publikoaren Legearen Testu Bategina onesteko urriaren 30eko 5/2015 Legearen 63. artikuluan aurreikusitako arrazoiak ematen direnean, edota hura izendatzea beharrezkoa egin zuten arrazoiak desagertzen direnean.

Izendapena ezeztatua geratuko da honako arrazoi hauetako bat tarteko denean:

- Bitarteko funtzionarioaren lanpostua karrerako funtzionario batek betetzen duenean, araudiak aurreikusitako sistemetakoa baten bidez.
- Plaza bat-batean amortizatzen denean.
- Udalak jotzen duenean dagoeneko desagertu egin direla bitarteko funtzionarioaren beharrezko eragin zuten premiatasun arrazoiak.

Hamaikagarrena. — Gorabeherak

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmena izango du sortutako zalantzak ebazteko, eta hautaketa-prozesuaren martxa egokirako beharrezkoak diren erabakiak hartzeko —oinarri hauetan ezarrita ez dagoen guztiari dagokionez—.

Interesdunek deialdiaren, oinarrien eta horietatik zein Epaimahai Kalifikatzailearen jardueratik erator daitezkeen administrazio-egintza guztien kontra egin dezakete, Admi-



nistrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean zehaztutako kasuetan eta bertan ezarritako moduan.

Oinarrietan aurreikusi ez diren kasuetarako, honako hauei erreparatuko zaie: Estatu-ko Administrazioen zerbitzura diharduten langileak sartzeko araudi orokorrari (364/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa); Tokiko Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeari; Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen 6/1989 Legeari eta horren eta ondorengo aldaketari; eta aplikagarriak diren gainerako xedapenei.

Hamabigarrena. – Aldi baterako lan-poltsak

Hautaketa-prozesuaren emaitzekin lan-poltsa eratuko da, oposizio aldiko ariketak gainditu dituzten izangaiekin. Hasieran, 3 urteko iraupena izango du lan-poltsa horrek, eta aldi baterako langile-beharrizanak betetzeko baliatuko da. Basauriko Udaleko lan-poltsai buruzko araudian ezarritakoaren arabera kudeatuko da aipatutako lan-poltsa, jarraian datorren paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe.

Aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik eratutako lan-poltsa agortzen bada, beste lan-poltsa batzuen aurrean lehentasuna izango dute nahitaezkoak eta baztertzai-leak diren probarik gehien gainditu dituztenekin osatutako zerrendek, gainditutako proba horietan guztira lortutako puntuen hurrenkeran.

**GAI-ZERRENDA****ZATI OROKORRA**

1. gaia: 1978ko Espainiako Konstituzioa: printzipio orokorrak.
2. gaia: Euskal Herriko Autonomia Estatutua: Atariko Titulua.
3. gaia: Udal antolamendua. Udal organoen eskumenak eta funtzionamendua.
4. gaia: Otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa: printzipio orokorrak.

ZATI ESPEZIFIKOA

5. gaia: Egurra. Arbola-egurraren zati nagusiak. Haziera-eraztunak. Zurgiharra.
6. gaia: Egurra prestatzea, hura erabiltzeko. Egurraren akatsak eta irregulartasunak. Adabegia, eta motak.
7. gaia: Eraikuntzarako egurraren kalitateak. Zerra-egurraren ohiko mozketak.
8. gaia: Mihiztadurak, loturak eta akoplamenduak. Zatiak elkartzeko mihiztatze nagusien marraketa. Aho zirrikako mihiztadurak. Zur erdiko mihiztadurak. Hozkadun mihiztadura. Kurrika-mihiztadura.
9. gaia: Egurrezko bilbadura horizontalak. Egurrezko bilbadura gaineko zola.
10. gaia: Egurrezko estaldurak. Isurki bakarreko estaldurak. Bi isurkiko estalduren bilbadura. Zertxak. Pendoloidun eta jabaloidun armadurak.
11. gaia: Egurrezko zoladurak. Tronadurak jartzea. Estaldurak jartzea. Sabai aizunak eta kasetoidurak.
12. gaia: Egurrezko arotzeria. Irekitzeko moduko leihoak. Leiho gidaridunak. Gillotina-leihoak. Leiho baskulagariak.
13. gaia: Sarrera-ateak. Barruko ateak. Ate tolesgarriak.
14. gaia: Sukalde-armairuak. Armairuak: estaldura eta banaketak. Markoak, mutur-estalkiak eta ate-jantziak.
15. gaia: Sarrailak. Sarraila motak. Ezaugarriak, sarrailak instalatzea eta horiek konpontzea.
16. gaia: Esekitzeko burdineria, eta segurtasun-burdineria. Kremona-motako itxiturak. Leiho-barrak. Zumitzak eta neoprenozko tirak, leihoen estankotasuna bermatzeko. Ate-ixteko malgukiak.
17. gaia: Egurraren ezaugarriak, lehortzeari dagokionez. Egurra aire zabalean lehortzea. Egurraren lehortze artifiziala.
18. gaia: Egurraren hezetasuna. Uzkuurdura, eta horren arrazoiak. Deformazioa, egurraren uzkuurtze-arrazoi gisa; egurra kurbatzea.
19. gaia: Egurrerako tratamendu kimikoak. Xilofagoen erasoak eta usteltzeak. Prebentzioa eta aurre egitea.
20. gaia: Arotzerian erabilitako makineria. Makina garrantzitsuenak eta erabilienak, eta horien ezaugarriak. Tresnak eta lanabesak: motak, eta zertarako erabiltzen diren.
21. gaia: Prebentziorako esparru-araudia. Lantokietan bermatu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak, seinaleztatzeari eta laneko ekipamenduak erabiltzeari dagokionez. Arotzeria-lanaren berezko arriskuak. Babes-neurri indibidual eta kolektiboak.